

16 de 16

16 de 16

Marta Bárbara Iker Carretero Silbia del Campo Miren Jone Ernaga
Celia Eslava Luz Grossi Garbiñe Huete Aintzane Ibarlucea Marta López
Amparo Lozano María Matesanz Teresa Olaizola Saray Pérez
Ignacio Mateo Sánchez Jaione Vélez Maya Vergel

Koordinazioa / *Cordinación*:
Garbiñe Huete

Hamasei pertsonek osatzen dute erakusketa hau, "Artea eta Funtzioa" masterraren lehen edizioko ikas-kide direnak, EHU-UPVko Arte Ederren Fakultatean. Sormenerako material gisa zeramika erabiltzen dute, eta hori da erakusketaren ardatza; Arte-diskurtsoa aipatzeko utz liteke, prozesuan bertan baitago mamia.

Dieciséis es el número de los componentes de esta exposición cuyo vínculo es la participación en el primer máster "Arte y Función" impartido en la facultad de BBAA de EHU-UPV. La utilización del material cerámico como medio para la creación es el eje sobre el que gira esta muestra donde la variedad de discurso artístico se puede obviar, considerando como hilo conductor el propio proceso.

Artea presente dago Historia hasi zenetik. Eta hala da gizakiak motibatzen dituelako, argudioak dauzkalako, irakurketak sustatzen ditu, galderen lekuko delako, galderak egiten dituelako, eta askotan, harritu, distortsionatu edo asaldatu egiten gaituelako. Inguruarekin edo gizabanakoekin kritiko izan daiteke eta gizarte-egonezinen kontzientzia izan nahi du, bere helburua deseroso sentiaraztea baita, bidegabekeriak seinalatzen eta gaitzak eta ohiturak zalantzan jartzen baititu.

Lanek kanpoko alde bisuala dute, eta ikusleak, normalean, objektibotasunez erreparatzen dio. Baina aldi berean, barnetasun sekretua ere badaukate, eta horren bertuteak ikusleen arretarik handien, sentiberatasun eta ezagutzaren bitartez bakarrik antzeman daitezke. Izaki oren esentziaren azpitik, konnotazioak adierazten dituen izakia dago, begiratzen dutenen galdera ugariei irekia geratzen dena.

Pieza bakoitzaren emaitza, askoz lehenago hasten den ibilbidearen amaiera da apenas. Lehenengo eta behin, leku komunetik alde egiten duenaren, desberdindu nahi denaren, lengoaiak aurkitzen dituenaren, esateko zerbait duenaren eta topikoetan edo leku komunetan ez jausteko soluzio eta proposamen berriak bilatzen dituenaren sormen-dedikaziorako jarrera dago. Beranduago, garatu nahi diren gai horiek zehazteko balio duen proiektuaren planteamendua sortzen da. Ondoren, prozesuak jarraitzen du islatu nahi diren kontzeptu, sentsazio eta ideietarako egokienak diren materialak hautatzearekin. Horren ostean, lan egin ahala erabakiak hartzea dakarren lan zuzena dator. Esperimentatzea ez da bukatzen hautatutako buztin, loza, erregogor edo portzelanen egosketa gradua eta denborak zehaztu behar baitira. Piezak, orduan, teknologiaren lana hartzen du, eta zoriaren ziurgabetasunak ere eragin egiten du bertan. Guztia amaitzen da ikusleak begiratzen duenean, esperientzia mundu oso bat atzean duen ezagutza-materia legez ikusten eta pentsatzen duenean.

Distantzia hartuta ikusi, antzeman, begiratu eta kuxkuxean ibili.

El arte está presente desde los comienzos de la historia. Y es que motiva a los seres humanos, tiene argumentos, despierta lecturas, testimonia cuestiones, realiza preguntas y hasta desconcierta, distorsiona o perturba. Puede ser crítico con el entorno o con los individuos y no rehúye ser conciencia del malestar social, cuyo fin no es otro que generar incomodidad porque indica injusticias y pone en cuestión lacras y costumbres,

Los trabajos tienen una parte exterior que es visual y tiende a ser percibida por el espectador de modo objetivo. Pero también disponen una secreta interioridad, cuyas cualidades solo pueden ser descubiertas desde la atención máxima, la sensibilidad y el conocimiento de los que observan. Detrás de la esencia de cada ser hay un estar que manifiesta connotaciones y queda abierto a las numerosas interrogantes que cualquier persona puede confeccionar en torno a lo que mira.

El resultado de cada pieza es apenas el punto final de un recorrido que comienza mucho antes. Primero está la actitud de la dedicación creativa de quien huye del lugar común, busca diferenciarse, halla lenguajes, tiene cosas que decir e indaga en nuevas soluciones y propuestas para no caer en tópicos ni lugares comunes. Más tarde nace el planteamiento de un proyecto que sirve como base para concretar aquellas cuestiones que se pretenden desarrollar. Luego el proceso continúa con la elección de los materiales más adecuados a los conceptos, sensaciones e ideas que se quieren trasladar. Viene después el trabajo directo que hace tomar decisiones sobre la marcha. La experimentación no acaba, pues hay que determinar el grado y los tiempos de cocción que necesitan los barro, las lozas, los refractarios o las porcelanas elegidos. La pieza recoge entonces la acción de la tecnología en la que también opera la incertidumbre del azar. Todo culmina cuando hay alguien la mira, la palpa atentamente con los sentidos y piensa en ella como materia de conocimiento que tiene todo un mundo de experiencias detrás de sí.

Ver, mirar, percibir, observar y curiosar desde la distancia.

Inpresioek presentzia sendoa dute beti otzana eta iragazkorra den zeramikaren munduan. Inpresio horren malgutasun itsaskorrek modu solidoago eta iraunkorragoan, ez hain hauskor, osatzeko beroaren beharra du.

Hasieran, inguruan dagoenaren kalkoak dira. Presioaren papera da aurretik existitzen denaren molde iragankorrek sortzea da. Ondoren, modu bizikor eta sortu berrian eraikitzen denaren txinparta dator.

Lehen kasuan dago Maria Matesanz Morenoren planteamendua. Bere "Arkeologiak" lanak arakutzen ditu modu askotariko aldaketak begiratu egiten denaren eta jasota uzteko ekintzaren aretan. Jazoerak ukitzen dituzten azalak, anbiguotasun handiago edo txikiagoarekin adierazitakoak.

Amparo Lozano biziaren sorrerara hurbiltzen da eta mikroorganismoak sortzen ditu, mugitu ahala elkarren bila dabiltzanak eta euren artean desberdintzen saiatzen direnak. Batzuk apur bat puntadunak dira eta maskulinitasunarekin lotzen diren osagarriak dituzte. Besteak ahurrak dira, eta emakumetasunari egiten diote erreferentzia.

Ondoez sozialak eramaten du Celia Eslava ohiko-tasunetik aldentzera beste mundu bat posible dela irudikatzeko, izakiak mutatuz eta lurrazalean bizi baldintza berriak ezarri.

Aintzane Ibarlucea Aguirrek sareta antzeko bat sortu du, eta bertatik, errealtateari so egin dakioke. Sei pieza dira, lurrean kokatuak eta egurrezko idulki baten gainean. Batak besteari eusten dioten organismoak dira. Artistak esperientziaren bideak irudikatu nahi ditu, eta esperientzia horren leihoak gizabakoen nortasuna modelatzen doaz.

Jaione Vélezek bestelako izakiak sortzen ditu. Asalduta sortzen dira eta bizirauteko zirtakatzen eta borrokatzen diren izakiak ematen dute. Kolonia biomorfiko

Las huellas tienen una fuerte presencia en el universo siempre dúctil y permeable de la cerámica. Una impronta cuya untuosa maleabilidad necesita del calor que la conforma de una manera menos frágil y más sólida y duradera.

Al principio son calcos de lo que existe alrededor. La presión ejerce el papel de crear efímeros moldes de lo preexistente. Viene después la crepitación de lo que se construye de un modo vital y emergente.

En el primer caso está el planteamiento de María Matesanz Moreno cuyas "Arqueologías" registran todo tipo de trasvases entre aquello que se mira y la acción de dejar constancia. Una serie de pieles que palpan los sucesos y les manifiesta con mayor o menor ambigüedad.

Amparo Lozano se acerca al origen de la vida y genera una serie de microorganismos que en su desplazamiento parecen buscarse tanto como diferenciarse. Unos son suavemente puntiagudos y tienen componentes asociadas a lo masculino. Los otros son cóncavos y hacen referencia a lo femenino.

El malestar social lleva a Celia Eslava a distanciarse de la realidad cotidiana para imaginar que otro mundo puede ser posible mutando los seres y disponiendo nuevas condiciones de vida sobre la tierra.

Aintzane Ibarlucea Aguirre ha creado una especie de celosía desde la que se puede mirar la realidad. Seis piezas que están colocadas en el suelo y sobre una peana de madera. Son como organismos que se apoyan los unos en los otros. La artista quiere representar los caminos de la experiencia, cuyas ventanas van modelando la personalidad de los individuos.

Jaione Vélez crea seres de otro tipo. Surgen convulsamente y semejan existencias que crepitan y luchan por la supervivencia. Están huecos y ponen en evidencia sus abismos interiores. Son colonias biomórficas y distorsionadas. Volúmenes bulbosos y con bocas como tentáculos que quieren salir del hermetismo y la soledad que les da nombre.

eta distortsionatuak dira. Bolumen erraboldunak dira, eta izendatzen dituzten hermetikotasun eta bakardade-tik atera nahi diren tentakuluen itxura duten ahoekin.

Garbiñe Huete Etxeandiaren egiturak geometrikoagoak dira, baina energiadun esperientzia ezku-tuak adierazten dituzte ere bai. Bihurgunetsu, astin-tzen dira, eta tente, ahitzear daude, nor berea burua ezagutu eta ezagutarazteko ideia planteatzen duen amildegia baten muga. "Zure burua ezagutu ezagut zaitzaten" lanak izatearen nortasunaren eta egotea-ren identifikazioaren arteko etengabeko borroka dia-lektikoaren ideia planteatzen du.

Ignacio Mateo Sánchezen "Giza izatearen introspek-zio bidea" lanak harremana proposatzen du leku bat or-denatzen duten eta begirada bere ingurutiko paseo bi-lakatzen duten forma geometriko bertikalekin. Izurtzen den, perfektua ez den ordena batu egiten zaie modulu baten neurri eta erritmoari, sentsazio eta esperientzia psikologikoen sare trinkoa eraikitzen duena azkenik.

Errepresentazioen estrategia edo funtzio propioen ezaugarrietara doazen bestelako obrak daude, bizitza erre-alaren elementuak adierazten dituztenak. Ha-sieran, bolumen sendoak daude, eta horien pisu-met-atzeak zapaltze fisikoaren mina eragiten du. Zentzu ironikoa baita ere, baina ez hain agoniazkoa, Iker Car-reterok "The world is yours" erregogorrean adieraz-ten duena; haren bolumen dentsuak kalashnikov me-trailleta hilgarrien pilaketaren forma irudikatzen du.

Gero, beste materiak barruan hartzeko balio duten zuloak jaiotzen dira. Baina ez dira artisau-errepikape-nak, aniztasuna tuneatu behar da, ordea, zertarako erabiliko ditugun galdera hori kitzikatzeko. Eta era-bileraz harago, zer esan nahi den. Hori da Silbia del Campok egin duen uraska luzean, te-kikaratxoan an-zeko heldulekua duena

Saray Pérezen "Pomario" izenburua hitz jokoa bai-no gehiago da, "poema" eta gaztelaniazko ateen es-

Las estructuras de Garbiñe Huete Etxeandia son más geométricas pero también manifiestan experiencias laten-tes de energía. Se cimbrean sinuosas y erguidas están al borde del desfallecimiento, un abismo cuyo límite plantea la idea de saber quien uno es y de que lo sepan los demás. "Reconocerse Ser reconocido" propone la idea de una lu-cha permanentemente dialéctica entre la identidad del ser y la identificación del estar.

El "Camino de introspección en la naturaleza humana" de Ignacio Mateo Sánchez propone una relación con las verticales formas geométricas que ordenan un lugar y convierten la mirada en un paseo por su entorno. El orden ondulante y no perfecto se une a la medida y el ritmo de un módulo que acaba constituyendo una malla tupida de sensaciones y experiencias psicológicas.

Hay otra serie de obras que remiten a funciones o a estrategias propias de la representación donde se ponen de manifiesto elementos de la vida real. En el principio son los volúmenes contundentes cuyos pesos acumulativos provocan el dolor de su físico aplastamiento. Un sentido irónico pero no menos agónico que Iker Carretero hace confluír en el refractario "The worlds is yours" cuyo den-so volumen mimetiza la forma de un apilamiento de mor-tíferas metralletas kalashnikov.

Después nacen los huecos que sirven para acoger en su interior otras materias. Pero nada de ser repeticiones artesanas, sino de tunear la diversidad para estimular la incógnita de para qué emplearles y, más allá del uso, qué se quiere decir, es lo que ocurre en el alargado abrevadero que tiene un asa como el de las tazas de té que ha realizado Silbia del Campo.

El título "Pomario" de Saray Pérez es algo más que un interesante juego de palabras en torno al poema y el pomo de la puerta. Antes que nada, propone la relación entre un objeto común y las dieciséis diferentes personas que los han usado en el taller. Como dice, se trata actos de comu-nicación que van de los afectos de darles la mano a los con-ceptos funcionales.

kulekurako “pomo” hitzen artekoa. Ezer baino lehen, ohiko objektu baten eta tailerrean hori erabili duten hamasei pertsonen arteko harremana proposatzen du. Esaten duen bezala, komunikazio ekintzak dira, eskua ematea bezalako afektuetatik kontzeptu funtzionale-tara doazenak.

Maya Vergel Paézen lanetan lotura metaforikoak daude. Gizakiaren parteak dira edo horien egiaztape-na, baina badira beste gauza bat ere bai: esperientzia baten emaitza edo dirua eskatzea itsulapikoetako au-
rrezkiekin lotzeko irekitze bat.

Beste planteamendu artistiko garaikide batzuk be-zala, zeramika ere hedatu egiten da beste baliabide ba-tzuekin esperimintatzeko. Beste prozedura batzuekin nahasten da, material eta eraikitze-estrategiarik ego-kienak uztartzen ditu.

Miren Jone Ernagaren “Inklutadora neofatal” la-nak umorea eta sarkasmoa proposatzen ditu bizi-tzaren lehen esperientziak oinarri hartuz. Gizatiarra denaren eta zeramika sortzearen arteko paralelismoa.

Esperientzia batzuetan, izan denaren eta norbai-ten adimeneko oroipena baino ez denaren nozioan uztartzen dira. Transzendentzia dosiekin, adimena-ren mapan tartetxo bat baino gehiago izan nahi dute taupaka dagoen eta ezinegona eragiten duen “ductus” iragazkorrean, eta irauteko eskubidea izaten jarraitu nahi du. Aurretik ezarritakoaren irudi eta oroipena kontziente bihurtzen dira, irudiak erabiltzen dituzten piezak, muntai eta instalazioen izaera dutena.

Luz Grossik iragazkor egin nahi du, normalean, estali egiten den hori. Itxuren azpian dauden barruko aztarnen kasua da, urtegiak aurrera egin ahala urpean geratzen diren herriekin gertatzen den bezala. Artistak bilgarria kendu nahi dio eraldatu den horri gizakion ur eta elektrizitate beharrianak asetzeko. Ura jaisten de-nean zabaltzen diren zirrikituak dira, eta lurralde ho-riek zer ziren ikus daiteke, zati baten baino ez bada ere.

Hay ciertas conjunciones metamórficas en las obras de Maya Vergel Paéz. Son partes humanas o son su constatación, pero también son otra cosa: el resultado de una experiencia o una apertura a relacionar el pedir dinero con el ahorro de las huchas.

Como otros planteamientos artísticos coetáneos, la ce-rámica también se expande hasta experimentar con otros medios. Lo que supone mestizarse con diferentes procedi-mientos, poniendo en contacto a los materiales y las estra-tegias constructivas más pertinentes.

*La “inklutadora neofatal” de Miren Jone Ernaga pro-
pone el humor y el sarcasmo en una obra cuyo aliento se asienta en las primeras experiencias de la vida. Un para-
lismo entre lo humano y la creación de una cerámica.*

En algunas experiencias convergen la noción de lo que ha sido y ya no es sino mero recuerdo en la mente de al-guien. Con ciertas dosis de trascendencia pretenden ser algo más que un hueco en el mapa de la memoria para con-verger en el “ductus” permeable de aquello que palpita e inquieta, y quiere seguir teniendo el derecho a permanecer. La imagen y el recuerdo de lo preestablecido se convierten en algo consciente en piezas que utilizan imágenes y tienen el carácter de montajes e instalaciones.

Luz Grossi quiere hacer permeable aquello que se ocul-ta de modo habitual. Es el caso de las huellas internas que están debajo de las apariencias, como ocurre en los pue-blos que quedan soterrados por el avance de embalses o pantanos. La artista trata de desembalar aquello que se ha transformado para satisfacer las necesidades humanas de agua y electricidad. Son rendijas que se despliegan cuando bajan las aguas y permiten visionar parte de lo que fueron aquellos territorios.

La continua necesidad de aprendizaje es el punto de partida de Marta Barbara Bustinduy. La artista ha cons-truido una cortina con un embaldosado de módulos cua-drados. Están hechos de loza y sobre ellos se proyecta su imagen dando forma a la materia en el torno. La vida gira

Marta Barbara Bustinduyrentzat, ikasteko beharizan etengabea da abiapuntua. Artistak gortina bat egin dut modulu laukietako lauzadurarekin. Lozaz eginda daude, eta horien gainean, euren irudia proiektatzen da, tornuan forma emanez materiari. Bizitza biraka eta biraka doa, teknika askorekin, oroipenak biziraun behar du ezagutza aberasteko. Berak esaten duen legez: “Garaiak aldatzen dira eta ikaskuntza etengabea da”.


Teresa Olaizola Azumendi eta Saray Pérez Castilla autoreen irudia ere agertzen da euren lan komunean. Performancea da, eta bertan, materia ibili egiten da bi gorputz biluz artean, “Komunikazio materiala II” sortuz buztina eta gizakien artean. Ekintza bideo batek hartzen du. Handik, prozesuan zehar, lokatzez estalitako izakiak agertzen dira, baita film kopatua, mugikortasun eta energiaren betea, osatzen duten hondakinak ere. Egonkortzen diren zirrikituak erakusten ditu, bertan zegoenaren zuloak erakusten dituztenak, oroimenean bakarrik bizi dena dagoeneko.

Harridura edo ardurak eragitea, gatazkak ebaztea, asmoak adieraztea... artisten interesen artean oraindik dauden gaiak dira. Bizitzeko borroka desagertu nahi ez duten artelanak bezalakoa da.

y gira sin cesar con unas técnicas u otras, el recuerdo debe sobrevivir para enriquecer el conocimiento. Como dice: “Los tiempos cambian y el aprendizaje es constante”.

También aparece la propia imagen física de las autoras en los trabajos comunes de Teresa Olaizola Azumendi y Saray Pérez Castilla. Una performance en la que la materia fluye entre un par de cuerpos desnudos propiciando una “Comunicación material II” entre el barro y los seres humanos. La acción es recogida en un vídeo en el que emergen no sólo unos seres cubiertos de barro durante el proceso, sino también unos restos que conforman una película alabeada y plena de movilidad y energía. Una muestra de los resquicios que se consolidan y dejan entrever los huecos de lo que estuvo allí y ya solo existe como evocado recuerdo.

Generar extrañezas, provocar preocupaciones, solucionar conflictos, emitir intenciones son cuestiones que siguen teniendo un hueco en el interés de los artistas. La lucha por la vida es como las obras de arte que se resisten a desaparecer.



IKASKETA
Loza, metala eta bideoa
200x170cm. 400 diskete inguru

APRENDIZAJE
Loza, metal y vídeo
200 x 170cm. 400 disquetes aprox.

MARTA BÁRBARA

Garaiak aldatzen dira eta ikaskuntza etengabea da.

Informatika ikasten hasi nintzenean, Internetik ez zegoen, informazioa hiru eta erdiko disketeetan gordetzen genuen. Gaur egun, hodei zibernetikoan gorde dezakegu.

Garai hartan, zeramika klaseetara nindoan, eta aspaldi bezala torneatzen ikasi nuen, buztina lantzeko oinarriari eragiten zion gurpil handi bat oinarekin biratuz. Orain, tornuak elektrikoak dira, abiadura erregula dezakezu, eta abiadura hori konstantea da.

Nire kezkak berrerabiltzea, errepikapena eta oroimena dira. Objektuak oroitzeaz eta eta egiteko moduez atera zen pieza hau, nire lanean hain erabilgarriak izan diren eta hainbeste aldatu diren tresna horietako batzuekin sortua.

Ondo ikasitakoa ez da inoiz ahazten.

Los tiempos cambian y el aprendizaje es constante.

Cuando comencé a estudiar informática no existía internet, la información la guardábamos en disquetes de tres y medio. Ahora la podemos guardar en la nube cibernética.

En aquel mismo tiempo, asistía a clases de cerámica donde aprendí a torneear como antaño, haciendo girar con el pie una gran rueda que movía la base sobre la que se trabajaba el barro. Ahora los tornos son eléctricos, puedes regular la velocidad y ésta es constante.

Algunas de mis inquietudes son la reutilización, la repetición y el recuerdo. Del recuerdo de los objetos y de las maneras de hacer surgió esta pieza creada con algunas de esas herramientas que tan útiles han sido para mi trabajo y que tanto han cambiado.

Lo que bien se aprende nunca se olvida.



THE WORLD IS YOURS
Buztin erregogorra
102 x 96 x 28 cm

THE WORLD IS YOURS
Barro refractario
102 x 96 x 28 cm

IKER CARRETERO

Buztin egosiaren materialtasunak eta prozesuaren bitartez lortutako aztarna estratifikatuak itxura zakarra eta astuna ematen diote pieza trinkoari, ukitu basatiarekin. Goiko planoak, akaberen diferentzia dela eta buztinarekin kontrastatzen duena, irudi ikonikoa hartzen du, AK- 47 fusila, 1947ko Avtomat Kaláshnikova, indarkeriaren kontzeptura eramaten gaituen. Zuriak eta beltzak, aurkako terminoak, indarkeria armatuaren izaera anbibalentea irudikatzen dute, gizakiak sortutako armak gizakia bera erailtzeko, batzuetan, suntsitzaileak izan daitezkeenak, eta bestetan, eraikitzaileak, zapaltzaileak edo askatzaileak, are gehiago zapalduen talaiatik begiratzen bada.

“Hala ere, ez ditugu besteak erailtzen bakarrik, beharrezkoa denean geureak ere erailtzen ditugu. Indarkeriak bakarrik alda dezakeelako mundu hiltzaile hau, izaki bizidun guztiek dakiten bezala”.

(Bertold Bretch)

La materialidad del barro cocido y la huella estratificada obtenida mediante el proceso dotan a la pieza maciza de un aspecto tosco y pesado, dándole un toque brutalista. El plano superior, en contraste con el barro por la diferencia de los acabados, se torna en imagen icónica, el fusil AK-47, Avtomat Kaláshnikova modelo 1947, que nos remite directamente al concepto de violencia. Blanco y negro, términos opuestos, representando el carácter ambivalente de la violencia armada, armas que son fabricadas por el ser humano con el fin último de aniquilar su propia vida, armas que pueden resultar a veces destructoras y otras veces constructoras, veces opresoras y veces liberadoras, más si se mira desde la atalaya de los oprimidos.

“Sin embargo, no solo matamos a los otros sino también a los nuestros, cuando es preciso. Pues solo la violencia puede cambiar este mundo asesino, como lo saben todos los seres vivientes.”

(Bertold Bretch)



ASKA-ABREVADERO (PALESTINA-ISRAEL)
Loza iragazia eta beira
95 x 7,5 x 5cm.

ASKA-ABREVADERO (PALESTINA-ISRAEL)
Loza de colado y vidrio
95 x 7,5 x 5cm.

SILBIA DEL CAMPO

Askak animaliek ura edateko lekuak dira.

Bizikidetza espazioa, topalekua. Bertan, elkartruke sozialak ematen dira, beharizanak asetzen dira, egarria asetzen da.

Animalia-taldeek leku horietara doazenez, ez da ohikoa espezie edo talde desberdinak bertan elkartzea; hori gertatzen denean, bi gauza gerta daitezke: gatazka sortzea gailentasuna edota dominantzia markatzeko, edo espezie eta talde desberdinen arteko errespetua egotea, egarria asetzeko uneko bizikidetzan.

Topaleku, elkarrizketa gune edo gatazka eremu gisa hartuta askaren ideia, lan hau garatzen dut. Edateko diseinatutako objektu batetik abiatzen naiz: te-kikaratxoa. Erreferentzia hori konnotazio sozialengatik egiten dut, kafea hartzea bizikidetza elkartzeko arrazoi gisa.

Pertsonentzako asa, komunikazio eta inkomunikazio eremua.

Hitz egiteko kode berbera ezarri beharra dago, egiteko modu komuna... Kode hori izan daiteke kikaratxoa, elementu bateratzailea, gizakiak elkarrekin konektatzeko elementua...

Los abrevaderos son lugares donde los animales acuden a beber agua.

Espacio de convivencia, de encuentro. En él se producen intercambios sociales, se cubren necesidades vitales, se apacigua la sed.

Por la afluencia de las manadas a estos lugares, es raramente habitual que diferentes especies o grupos coincidan allí; cuando se da esta situación, pueden suceder dos cosas: que surja un conflicto marcándose supremacía y/o dominancia, o que las diferentes especies y manadas se respeten conviviendo en el momento de calmar la sed.

Tomando la idea de abrevadero como lugar de encuentro, diálogo o conflicto, desarrollo este trabajo. Parto de un objeto diseñado para beber: la taza de café, cuya referencia viene dada por su connotación social, tomar un café como motivo de convivencia o de reunión.

Abrevadero para personas, espacio de comunicación e incomunicación,

Para dialogar es necesario establecer un mismo código, una misma manera de hacer... Este código puede ser la taza, elemento unificador, elemento de interconexión entre humanos...



INKLUTADORA NEOFATAL
Portzelana, metakrilatoa, metala
36 x 97 x 37 cm

INKLUTADORA NEOFATAL
Porcelana, metakrilato, metal
36 x 97 x 37 cm

MIREN JONE ERNAGA



FUTURUS -A -UM
Portzelana eta altzairua
164 x 45 x 45 cm

FUTURUS -A -UM
Porcelana y acero
164 x 45 x 45 cm

CELIA ESLAVA

“Eta etorkizuna zaretela diotsuet, bizi garen sistema hau hautsita baitago”.

Sistema horrek, jendeak ekintzaren eremuan di-tuen aukerak ahitu ditu.

Dena salgai bihurtzen duenez, dirua eta etekina bizitzako interes bakarrak izanik, sistemak gainerako interes eta aberastasun eder guztiak suntsitu ditu, baina gazteengan bizirik daudenak oraindik”.

José Luis Sampedro
(elkarrizketa)

“Lan merkatu izenekoan sartzen ari diren edo sartzeko prestatzen ari diren belaunaldiko gazteak ondo hornituak eta heziak izan dira sinesteko euren bizitzako xedea dela gurasoen arrakastak gainditzea eta atzean uztea.

Ezerk ez ditu prestatu lan aldakorretarako edo langabezia iraunkorrerako, ikuspuntuaren iragankortasunerako eta porroten iraunkortasunerako”.

Zygmunt Bauman
(“Mundu likidoko Hezkuntzaz” liburutik)

“Y os digo que sois el futuro porque el sistema en que se está viviendo está roto.

Es un sistema que ha agotado, ha agotado las posibilidades de estímulo de la gente en el terreno de la acción.

Es un sistema que, al convertirlo todo en mercancía, al dejar el dinero y el beneficio como único interés de la vida, ha destruido todos los demás hermosos intereses y riquezas de la vida que en los jóvenes están todavía vivos”.

José Luis Sampedro
(entrevista)

“Los jóvenes de la generación que ahora está entrando o se está preparando para entrar en el llamado ‘mercado laboral’ han sido bien pertrechados y adiestrados para creer que la tarea que deben cumplir en su vida es sobrepasar y dejar atrás los éxitos de sus padres.

Nada los ha preparado para los trabajos volátiles y desempleo persistente, la transitoriedad de las perspectivas y la perdurabilidad de los fracasos”.

Zygmunt Bauman
(del libro *Sobre la educación en un mundo líquido*)



ZURIRA BIDAIATUZ
Mistoa
126 x 21 x 11,5 cm

VIAJE AL BLANCO
Mixta
126 x 21 x 11,5cm

LUZ GROSSI

Sakonean iraganeko oroipenak
ezkutatzen dituzun zingira.
Zure beroarekin ura lurruntzen
eta bideak aurkitzen dituzun eguzki.

*Pantano que en tus profundidades
escondes recuerdos de un pasado.
Sol que con tu calor evaporas
el agua y descubres caminos.*




ZURE BURUA EZAGUTU EZAGUT ZAITZATEN
Loza estrusioa
Aldakorrak

RECONOCERSE SER RECONOCIDO
Loza extrusión
Variables

GARBIÑE HUETE

Arkitektura biguna, bizitza bezala. Orekaren mugan dauden uneak, eraistear, beti tente, gora begira.

Arquitectura blanda, como la vida. Momentos en el límite del equilibrio, a un paso del derribo, siempre erguida, mirando hacia arriba.



URRATSEAN ZEHAR

Loza (110 0°C) estrusioa

60x 60 x 30 cm, 45 x 30 x 20 cm

70 x 40 x 25 cm, 50 x 35 x 25 cm

50 x 35 x 25 cm, 25 x 15 x 18 cm

A TRAVÉS DE LA HUELLA

Loza (110 0°C) extrusión

60x 60 x 30 cm, 45 x 30 x 20 cm

70 x 40 x 25 cm, 50 x 35 x 25 cm

50 x 35 x 25 cm, 25 x 15 x 18 cm

AINTZANE IBARLUCEA

Aztarnetan zehar begiratzea une honetara bitarteko gure bizi-ibilbideari buruzko hausnarketa egiteko. Bizitzatik ibiltzean ematen ditugun pausuak ikusaraztea, ibiltzearen beraren oroimen gofratu legez, ibilbideak, bideak, mugimenduak eratuz, bizitzen eta ibiltzen ditugunak.

Eta horrela, baita ere, etengabe modelatzen gaituen igarotze horretan pentsatu, garen horretan aztarna uzten duten forma berriak sortuz.

Mirar a través de huellas para hacer una reflexión sobre nuestro recorrido de vida hasta ese momento. Visualizar los pasos que dejamos en nuestro andar por ella, como memoria gofrada del propio caminar formando recorridos, caminos, movimientos en los que vivimos y transitamos.

Y así, también, pensar en ese transitar que nos va modelando continuamente, creando nuevas formas que dejan huella en lo que somos.



40/72
Portzelanazko berrogei lore-ontzi zenbakitu
Instalazio aldakorra
230 x 140 x 140 cm. bakoitzak

40/72
Cuarenta jarrones de porcelana numerados
Instalación variable
230 x 140 x 140 cm. c/u

MARTA LÓPEZ

mlopezrosa@gmail.com
www.martalopezrosa.com



JATORRIA

Loza iragazia

15 x 15.5 x 15,5 cm, 22 x 17 x 2.5 cm

ORIGEN

Loza colada

15 x 15.5 x 15,5 cm, 22 x 17 x 2.5 cm.

AMPARO LOZANO

Gozotasuna, esentzia, anbiguotasuna.
Aurkako lerroak bat datoz, badoaz;
liskarra edo konplizitatea daude,
borroka edo beste bilatzea.
Batasuna, maiztasuna, jarraikortasuna.

*Sutileza, esencia, ambigüedad.
Líneas contrarias (con)fluyen;
hay enfrentamiento o complicidad,
lucha o búsqueda del otro.
Unión, frecuencia, continuidad.*



ARKEOLOGIAK
Estutu bidezko gresa, modelatua
60 x 80cm

ARQUEOLOGÍAS
Gres por apretón y modelado
60 x 80cm



ZUHAITZ GENEALOGIKO-GEOLOGIKOA
Argazkia + bideoa
50 x 70 cm

ÁRBOL GENEALÓGICO GEOLÓGICO
Fotografía + vídeo
50 x 70 cm

MARÍA MATESANZ

ARKEOLOGIAK

Lurrera begira ibili, ikusten dena eta ikusten ez dena, iragankorra dena erregistratu, une berezi baten erliebeko argazkia, gero aztertu, garbitu eta xehetasun guztiak arakatu ahala izateko gerora.

Gorputza eta Natura dira lan honetan elkarrizketan dauden elementuak. Lurrazala gorputz-azalarekin uztartzen da, integratu.

Gizabanako eta naturaren arteko elkarrizketa arakatzeko ekintzaren bitartez.

ZUHAITZ GENEALOGIKO GEOLOGIKOA

Naturako ekintza lan iragankor honetarako. Bertan, zuhaitza janzten dugu bere oinarri den lurrarekin.

ARQUEOLOGÍAS

Caminar mirando al suelo, lo que se ve y lo que no se ve, registrar lo efímero, una fotografía en relieve de un instante único, para después poder analizar, limpiar y escudriñar todos los detalles.

Cuerpo y Naturaleza son los elementos que dialogan en esta serie. La piel de la tierra, el suelo, se funde con la piel del cuerpo que se integra en él.

Un diálogo entre individuo y naturaleza a través de la acción del registro.

ÁRBOL GENEALÓGICO GEOLÓGICO

Una acción en la naturaleza para esta obra efímera en la cual vestimos al árbol con la tierra que lo sustenta.



KONTRAPASU
Pastilla-loza
75cm x 75cm x 130cm

CONTRAPASO
Loza de pastilla
75cm x 75cm x 130cm

TERESA OLAIZOLA

Balantzatxoa, ezegonkortasuna, eta hala ere, ezin zara mugitu, hankek ez dute aldaketarik nahi, ez dute luzatu nahi, ainguratuta daudela dirudi. Leku berean geratzen zara, lekua ez dena. Zulo txiki batean zaudete, uzkuriturik, estalpetzeko espazioak bilatuz, egokitu nahian. Harrapatzen zaitu eta ezin duzu ezer mugitu. Bizitzeari aurka egiten diozu.

Altxatzen zaren bakoitzean, astunago, segundo bakoitza metatzen da. Zure balantza orekatzeko kontrapisua behar duzu, jausteko aukera ekiditeko kontrapuntua. Itzulbidea hasten da, inertiaren menpe geratu nahi ez duzula, ohikotasunean berria bilatuz, guztia zalantzan jarriz. Kontaktua hauskor eta ezegonkorra da, beldurra eta estura eragiten dituena.

Eusten gaituen jesarlekuan gure aztarna geratzen da. Gure arrastoa uzten dugu behin eta berriro, zabunkatzean inpultsoa hartzen dugunean bezala; eta modu berean, bere aztarna uzten digu igaro dugun espazio orok.

Balantzatxoaren bitartez, harrapaezin bihurtzen den jolasa da. Inertzia, zalantza, denbora eta historia-ren pisuaz begiratzen diogu iraganari. Hautzaroko kontrapuntuen inertzia, beldurraren gizarteagatiko izatearen galera ez-izatean bilakatzeko. Bizitzeko egoiki ez diren espazio hauetan bizi den gorputz bilakatzeko. Ez izatetik izatera pasatzeko lana.

Balancín, inestabilidad, y aún así no puedes moverte, las piernas se resisten al cambio, a estirarse, parecen ancladas. Permaneces en el mismo lugar, un no lugar. Te encuentras en un pequeño hueco, recogida, buscando los espacios en los que cobijarte, en los que puedas adaptarte. Te atrapa y no puedes mover nada. Te resistes a la vida.

Cada alzada resulta más pesada, cada segundo se suma, se acumula. Necesitas un contrapeso para equilibrar tu balanza, un contrapunto que evite la posibilidad de caer. Comienza el camino de vuelta, intentando no someterse a la inercia, buscando lo nuevo en lo rutinario, cuestionándotelo todo. Es un contacto frágil e inestable que produce miedo y angustia.

En el asiento que nos mantiene queda nuestra huella. Dejamos nuestro rastro una y otra vez, al igual que nos impulsamos para columpiarnos; y de la misma manera, nos deja su huella todo espacio por el que hemos pasado. Es un juego que se torna inalcanzable a través del objeto-balancín. Miramos al pasado con el peso de la inercia, la duda, los años y la historia. La inercia de los contrapuntos de la infancia, la pérdida del ser a causa de la sociedad del miedo, para convertirnos en el no ser. Para convertirnos en el cuerpo que habita estos espacios inhabitables. El trabajo del no ser al ser.



POMARIO
Loza eta papera
12 x 2 x2.5 cm (bakoitza) x 16

POMARIO
Loza y papel.
12 x 2 x2.5 cm (c/u) x 16

SARAY PÉREZ

16 begirada.

16 kidesunak.

16 komunikazio ekintzak.

16 espazio-denbora berean partekatzen duten eta bizi diren pertsonak, talde baten parte direnak (zeramika), kontzeptuen kontzepzioa desberdin ikusten dutenak.

Hori erregistratuta geratzen da "Pomario" lanean eta bertan instalatutako zeramikazko ate-heldulekue-tan.

Heldulekua eta zeramika metafora perfektua dira hitzaren esanahi afektiboak kontzeptua aldatzen duela adierazteko.

16 miradas.

16 membrecías.

16 actos de comunicación.

16 personas que comparten y conviven en un mismo espacio-tiempo, y que forman parte de un grupo (la cerámica), que divergen en la concepción de los conceptos.

Esto queda registrado en el ejemplar editado "Pomario" y en los pomos de cerámica aquí instalados.

El pomo y la materia cerámica se convierten en la perfecta metáfora de que la significación afectiva de la palabra cambia el concepto.



KOMUNIKAZIO MATERIALA II
Bideo performancea
2' 30"

COMUNICACIÓN MATERIAL II
Video performance
2' 30"


SARAY PÉREZ / TERESA OLAIZOLA

Performanceak komunikatzean dagoen autogestio gaitasunari heltzen dio, komunikazio natural materialaren faseetara bueltatzea. Ez dago zalantzan jar ez daitekeen presentziarik, ekintza bera baizik, komunikazioa eta inkomunikazioak eta aztarnak itotako gorputzen elkarrizketa mutua. Azken hori buztinezko plaka baten erregistratuta dago, fonemen egarri diren bi gorputzetan eta haien baitatik dabilen elementu motorrean: materia, esentzia, eta kasu honetan, likido egoeran dagoen buztingorrian, gorputz hauetatik hegaka dabilena.

Elkarrizketako 120 metro dira, mahuka batean sartua, bizitza ponpatzen duena, tantaka erortzen dena, keinu bat, erregistro bat, elkarrizketa bat... geldo irristatzen dituen.

La performance obedece a la capacidad de autogestión de la comunicación, una regresión a los estadios de la comunicación material natural. No hay presencias incuestionables, sino más bien el acto, la comunicación y el diálogo mudo de los cuerpos ahogados por la incomunicación y la huella. Esta última se registra en una placa de barro, en dos cuerpos sedientos de fonemas y en el elemento motor que fluye por ellos: la materia, la esencia y en este caso en el barro rojo en estado líquido que revolotea por estos cuerpos.

Son 120 metros de diálogo embutido en una manguera que bombea vida, que gotea, que desliza lentamente, una mueca, un registro, un diálogo...



INTROSPEKZIO BIDEA GIZA IZATEAN
Loza
Hiru elementu 73 x 143 x 75 cm

*CAMINO DE INTROSPECCIÓN
EN LA NATURALEZA HUMANA*
Loza
Tres elementos 73 x 143 x 75 cm

IGNACIO MATEO SÁNCHEZ

Piezen artean ibiltzen denak, begiratu egiten du eta bere izatearen sentsazio indibidualistak bustitzen du naturan eta bere baitan existitzen diren forma geometriko sinpleen aurrean. Hala ere, lehen begiratuan, eraikuntza-modulu egonkor eta orekatu bakarretik sortutako uhin-forma inperfektuen organikotasuna nabarmentzen da.

Piezak esperientzia eta konparaketa pertsonalen multzo baten parte dira, gizakiaren natura zalantzan jartzean oinarrituak.

Joko bisualak, batez ere, bi faktore ditu. Lehena, arkitektura modernoarekin lotuta dagoen sare konplexua sortzea.

Bigarrena, egiturak sortzea naturak egonkortasuna, espazioaren aprobetxamendua, eustea eta oreka maximizatzeko gehien erabiltzen duen forma poligonalaren bitartez. Hexagonoa da formarik egokiena eta eraikuntza modulu bakarra sinpleak diren forma geometrikoetan.

Quien camina en torno a las piezas, observa y queda empapado de una sensación individualista de su existencia ante las formas geométricas sencillas, existentes en la naturaleza y en sí mismo. No obstante, contrasta a primera vista la organicidad de las formas ondulantes e imperfectas generadas a partir de un solo módulo de construcción estable y en perfecto equilibrio.

Las piezas forman parte de un conjunto de experiencias y comparaciones personales, basadas en el cuestionamiento de la naturaleza del ser humano.

El juego visual se da principalmente por dos factores. El primero, erigir y construir un complejo entramado que tenga relación con la arquitectura moderna.

El segundo, crear estructuras mediante la forma poligonal por excelencia utilizada por la naturaleza a la hora de maximizar aspectos tales como la estabilidad, aprovechamiento del espacio, sustentación y equilibrio. La forma del hexágono es la más adecuada y único módulo de construcción en formas geoméricamente sencillas.



BAKARDADEA
Buztin gorria
100 x 80 x 45 cm

SOLEDAD
Barro rojo
100 x 80 x 45 cm

JAIONE VÉLEZ

Bakardadea, estutasuna, hondakinak eta porrotak. Izaki honen erroak dira. Desegiten den izakia, galtzen dena, bere burua gorroto duena. Izaki berri eta txikiak banatzen zaizkio, alaiak, aldatu nahi dutenak. Berpiztea, bizitzaren hasiera berria, kontraesanez betea. Bere hazia optimismoa da, eta bere indarra, bizirik jarraitu nahi izatea.

Soledad, ansiedad, residuos y fracasos. Son las raíces de este ser. Un ser que se deshace, se pierde, se odia a sí mismo. De él se separan nuevos y pequeños seres vivos y alegres, que quieren cambiar. Un renacer, un comienzo vital y lleno de contradicciones. Su semilla es el optimismo y su fuerza querer seguir vivos.



MANUCHA
Loza beiratua
24 x 13 cm

MANUCHA
Loza vidriada
24 x 13 cm



ANUS ZURI
Portzelana
28 x 23 cm

ANUS ZURI
Porcelana
28 x 23 cm

MAYA VERGEL

Ezinezko itsulapikoa sortzeko asmoa paradoxa sortzea baino ez da, ikuslearengan galdera piztea errealitateari irakurketa berria eman diezaion.

Jokoa bailitzan, "itsulapiko" ikonoa bere izaera funtzionaletik banatzen da, eta begiratzen dioten haiengan, aurreztearen zentzuari buruzko hausnarketa zorrotzagoa pizten du, gure desioak etorkizunean ardatzeko jarrera dakarrena, oraina despistatuz.

La intención de crear una hucha imposible no es sino crear la paradoja, generar un interrogante en el espectador que le aboque a una nueva lectura de la realidad inmediata que contempla.

Como si de un juego se tratase, el icono "hucha" se desvincula de su carácter funcional, creando en quienes la observan una reflexión más aguda del sentido del ahorro, que deviene de una actitud de focalizar nuestros deseos en el mañana, despistando nuestro presente.

ZERAMIKA: ARTE ETA FUNTZIOA?

Zeramikako Masterrak, Arte eta Funtzioa, arte-praktika eta zeramikaren gaineko ezagutzaren oinarri diren ezagutza arlo asko aurkezten ditu, errealitate desberdinetatik gainera.

Masterraren edukiek gaur egungo eskulturaren zeharkako harremanak aztertzen ditu. Logika hori lotu egiten da esperientzia garaikideen ezagutza integratzailea mantentzeko interesarekin.

Masterraren titulutik bertatik aipatu egiten da funtzio terminoa, hala ere, ez du funtzionaltasuna helburu, ezta erabilera balioa ere; horien ordeztu, diseinu eta formaren arteko batuketa aztertu nahi du, identitatea determinatzen dutenak. Harreman hori integratu egiten da ezagutza berritzaileen batuketa baloratzeke modu berriekin, Espainia eta Europako gradu berrietan agertzen hasi direnak.

Arte Ederren Eskultura Departamentu barruko zeramikako arloaren berezitasunak ezagutza eta ikerketaren kudeaketa jakin bat garatzen ari da azken aldian, kontzeptuei eta prozesuei dagokienez.

EHU/UPVko Arte Ederren fakultateko departamentu ezberdinen irakaskuntzaren integrazioa sustatzen du Masterrak. Zeramika irakasten duten Estatuko beste Arte Ederretako fakultate batzuetako irakasleak egoteak ahalbidetzen du Masterra ibilbide ospetsua duten profesional eta artisten topagune izatea.

Programa osatu egiten da enpresa-praktikekin. Horrela, ikasleak harreman zehatza izan dezake unibertsitate eta gizartearekin.

PROFESIONAL ETA IRAKASLEEN LAGUNTZA ESKERTZEN DUGU:

Garbayo Randez, Antonio
Garrasa Salanueva, Angel José
Gomez Ruiz, Juan Antonio
Gonzalez Miranda, Elena
Grau Armengol, Matilde
Hernado López, Marcos
Herrera Jiménez, Jose María
Jodra Llorente, María Susana
Martínez Pérez, Herminia
Moreno Martínez, Javier
Música Lardizabal, Ane Miren
Navarro Segura, Evaristo
Osuna Luque, Carmen
Sáenz de Gorbea, Xabier

MASTERREAN PARTE HARTU IZANA ESKERTZEN DIEGU:

Fran Raya, Ceracasa enpresakoa
Toni Cumella, Cerámicas Cumellakoa
Honako artista hauei ere bai:
Enrique Mestre
Claudi Casanovas
Disenatzaile honi:
Santos Bregaña, Laia enpresakoa

BAITA ENPRESA ETA ZENTRO LAGUNTZAILEEI ERE:

Versa
Kultur Leioa
Museo de Ollerías
DPZ. Mueleko Zeramika Tailerra
Sargadelos
Vista Alegre- Atlantis

¿CERÁMICA: ARTE Y FUNCIÓN?

El Máster en Cerámica: Arte y Función, introduce saberes que fundamentan gran parte del conocimiento de la práctica artística y la cerámica desde sus diferentes realidades.

Los contenidos del Máster exploran las relaciones transversales de la escultura actual. Esta lógica enlaza con el interés de mantener un conocimiento integrador de las experiencias contemporáneas.

Desde el título del Máster se hace alusión al término función, sin embargo no se pretende una vertiente funcional, ni su valor de uso, sino explorar la confluencia entre el diseño y la forma, que determinan la identidad. Esta relación se integra con los nuevos modos de valorar la confluencia de conocimientos innovadores que empiezan a estar presentes en los nuevos grados, tanto en el estado como en Europa.

La especificidad del ámbito cerámico dentro del Departamento de Escultura en la Facultad de Bellas Artes viene desarrollando una gestión del conocimiento y la investigación, tanto en lo que implica a cuestiones conceptuales como en las referidas a los procesos.

El Máster potencia la integración docente de diversos departamentos de la facultad de Bellas Artes UPV/EHU. La presencia de profesores de otras Facultades de Bellas Artes del Estado que imparten docencia en cerámica, permite al Máster ser un punto de encuentro de profesionales y artistas de reconocida trayectoria.

El programa se completa con unas prácticas en empresas permitiendo al estudiante establecer una relación Universidad-sociedad concreta.

AGRADECEMOS LA COLABORACIÓN DE PROFESIONALES Y DOCENTES:

Garbayo Randez, Antonio
Garraza Salanueva, Angel José
Gómez Ruiz, Juan Antonio
González Miranda, Elena
Grau Armengol, Matilde
Hernado López, Marcos
Herrera Jiménez, Jose María
Jodra Llorente, María Susana
Martínez Pérez, Herminia
Moreno Martínez, Javier
Mugica Lardizabal, Ane Miren
Navarro Segura, Evaristo
Osuna Luque, Carmen
Sáenz de Gorbea, Xabier

AGRADECEMOS LA PARTICIPACIÓN EN EL MÁSTER A:

Fran Raya, de la empresa Ceracasa
Toni Cumella, de Cerámicas Cumella
A los artistas:
Enrique Mestre
Claudi Casanovas
Al diseñador:
Santos Bregaña, de la empresa Laia

A LAS EMPRESAS Y CENTROS COLABORADORES:

Versa
Kultur Leioa
Museo de Ollerías
DPZ. Taller Cerámica de Muel
Sargadelos
Vista Alegre- Atlantis

AURKIBIDEA / ÍNDICE

PRÓLOGO. Xabier Sáenz de Gorbea.....	7
MARTA BÁRBARA Ikasketa / Aprendizaje.....	12
IKER CARRETERO The world is yours.....	4
SILBIA DEL CAMPO Aska-Abrevadero (Palestina-Israel).....	16
MIREN JONE ERNAGA Inklutadora neonatal.....	18
CELIA ESLAVA Futurus -A -UM.....	20
LUZ GROSSI Zurira bidaiatuz.....	22
GARBIÑE HUETE Zure burua ezagut zaitzaten / Reconocerse ser reconocido.....	24
AINTZANE IBARLUCEA Urratsean zehar / A través de la huella.....	26
MARTA LÓPEZ 40/72.....	28
AMPARO LOZANO Jatorria / Origen.....	30
MARÍA MATESANZ Arkeologiak / Arqueologías.....	32
Zuhaitz genealogiko-geologikoa / Árbol genealógico-geológico.....	32
TERESA OLAIZOLA Kontrapauso / Contrapaso.....	34

SARAY PÉREZ Pomario.....	36
SARAY PÉREZ / TERESA OLAIZOLA Comunicación material II.....	38
IGNACIO MATEO SÁNCHEZ Introspekzio bidea giza izatean / Camino de introspección en la naturaleza humana.....	40
JAIONE VÉLEZ Bakardadea / Soledad.....	42
MAYA VERGEL Manucha.....	44
Anus zuri.....	44
ZERAMIKA: ARTE ETA FUNTZIOA?.....	46
¿CERÁMICA: ARTE Y FUNCIÓN?.....	47

